

A black and white portrait of Jose Mª Arizmendi Arrietaren, a man with glasses and a dark turtleneck, set against a red background with a white outline.

**JOSE M^a ARIZMENDIARRIETAREN
GIZA, SOZIAL ETA ESPIRITUZKO
IBILBIDEA
(1915-1976)**

A logo featuring a group of stylized human figures in various colors (red, blue, green, yellow) walking along a white path that leads towards the right, set against a red background.

ARIZMENDIARRIETA
KRISTAU FUNDAZIOA

JOSE M^a ARIZMENDIARRIETAREN GIZA, SOZIAL ETA ESPIRITUZKO IBILBIDEA (1915-1976)

www.canonizacionarizmendiarieta.com

Interneteko kontsultagunea, prozesuaren bilakaerari buruzko xehetasunak, horri lotutako albisteak edo orain arte argitaratutako informazio buletinak ezagutu nahi dituzten pertsonentzat..



Jaiotzen den pertsona oro prozesu bat egitera deitua dago, heriotzaren unean baino geldituko ez dena, edo, hobeto esanda, eraldatuko. Idatzi honek Jose M^a Arizmendiarieta *Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren* inspiratzaile eta sustatzailearen giza, sozial eta espirituzko ibilbidearen berri eman nahi du laburki.

Pertsona baten giza prozesuak lau etapa hauek zeharkatu ohi ditu: 1) pertsona hornitzeko edo egituratzeko etapa; 2) sustraitze eta esperientzia konfiguratzaileren etapa; 3) heldutasunaren eta errealismo krisiaren etapa; 4) murrizketa eta zahartasunaren etapa.

Jatorria: Izaeraren eta bokazioaren lanketa

Jose Mariaren hornitze edo egituratze pertsonalak Markinako (Bizkaia) Barinaga auzoko Iturbe baserriko familiaren eta bertako giro laboral eta espiritualetan ditu sustraiak, han jaio baitzen 1915eko apirilaren 22an, Europa lehen mundu gerran murgilduta zegoela. Jose Luis eta Tomasaren lau seme-alabetatik zaharrena izanik, Jose Mariak gurasoengandik giltzarri afektibo, erreflexibo, moral eta erlijioso sinple baina sakonak jaso zituen, existentziaren erronkei ekiteko.

Ama Tomasa izan zen, batez ere, Jose Mariaren ariman *Jainkoaren dohainaren ezagutzaren* hazia erein zuena (Jn 4,10). Aita Jose Luisengandik, berriz, Barinagako elizateko (auzoa) marko estua gaingitzen zuen errealitate soziala ezagutzeko kezka jaso zuen, gero eta handiago bihurtuko zena. Hiru urterekin, ezker begia galdu zuen etxeko istripu batean. Horren ondorioz, Jose Maria baserriko maiorazkoa izateagatik egokituko litzaizkiokeen ez bezalako zereginetara zuzendu litekeela sumatu zuen amak.

Lau urterekin, Jose Mariak Barinagako parrokia eskola inprobisatuan hasi zituen lehen mailako ikasketak. Hamar urte zituela, erdi mailako ikasketak hasi zituen Barinagako Auzo Eskola inauguratu berrian, Bizkaiko Aldundiak sustatu zituen ehun eskoletako batean. Ikastetxea, hein handi batean, bertako bizilagunek ordaindu zuten, auzolan erregimenean.

Argitaratzailea: Arizmendiarieta Kristau Fundazioa.

Maketazioa: Josan Martínez.

Inprimaketa: ABZ Impresión digital.

Lege-gordailua: xxxxxx.

ISBN: xxxxxx.

ISNI: xxxxxxxx.



**Gizarte-ekimen guztien gainera
bazen hari gidari bat: irizpide
ebanjelikoaren arabera humanizatzea.**

1927ko irailean, Jose Maria, hamabi urte zituela, Gaztelu-Elexabeitiko apaizgaitegian sartu zen *Latineko* lehen lau ikasturteak egiteko, tartean Hizkuntza Espainiarra, Oratoria, Katixima eta Historia Sakratua, Astronomia, Historia Unibertsala, Aritmetika, Aljebra, Euskal Gramatika ikasgaiekin.

Pertsonalismoaren eragina eta doktrina soziala

1931ko irailean, Bigarren Errepublika aldarrikatu ondoren, 16 urteko Jose Maria gazteak Latineko bosgarren maila hasi zuen Gasteizko Kontzilio Apaizgaitegian, non 800 ikaslek ikasten zuten. Hurrengo urtean, 1932an, filosofiako ikasketei ekin zien, Leoncio Arabiatorek, Manuel Lekuonak, Juan Thalamasek eta Jose Migel Barandiaranek, besteak beste, osatutako irakasle klustro nabarmenarekin. Jose Maria mutil geldigor eta jakiteko irrikaz agertzen da. Giro horretan, Emmanuel Mounier eta Jacques Maritain frantziar filosofoek planteatutako eta garatutako *pertsonalismo komunitarioaren* ekarpena ezagutzen hasi zen. Ordura arte ezagutzen ziren entziklika sozialen printzipio eta orientazioetan ere sartzen hasi zen: *Rerum Novarum*, langileriaren auziari buruzkoa (1891) eta *Quadragesimo anno*, ordena soziala berrezarri eta lege ebanjelikoaren arabera hobetzeari buruzkoa (1931).

1936ko irailean, Jose Maria Teologiako 1. maila ikasteko prest zegoen. Horrenbestez, *apaizgoaren mistikaren* giro berri batean sartu zen, Joaquin Goicoecheaundiak, Apaizgaitegiko aita espiritualak, eta haren maximo ezagunak bultzatuta: “Apaiz izan, apaiz beti eta guztian”.

Gasteizko Apaizgaitegian, teologiako irakasle talde bikaina edukitzeaz gain, Gasteizko Apaiz Mugimenduan aktiboki parte hartu zuen, non espiritualtasun ildo nagusi hauek eskaintzen zirelarik: Kristorekiko identifikazioa, apaiz santutasuna, adiskidetasun espiritualeko taldea, apaizaren beharra eta elizbarrutiko apaizaren errealizazioa eta trebakuntza. Gerra zibilak ikasketak etetea, kartzela ezagutzea, *matxinadarako akuilatze* delituagatik auzitegi militar batek epaitzea eta Burgosen zerbitzu militarra egin behar izatea eragin zion. Hala ere, Jose Mariaren laguntzaile espiritual Rufino Aldabalderen eragin pertsonalak proba horiei aurre egiten lagundu zion, Jesukristorekiko harreman afektibotik abiatuta. Bizitzaren orientazio horretan, Jose Maria 1940ko abenduan apaiz ordenatu zuten. Arizmendiarririk Lovainako Unibertsitatean gizarte arloko ikasketak zabaltzarekin amets egiten zuen, baina gotzainak beste plan batzuk zituen. Eta Arrasateko San Joan Bataiatzailearen parrokiako koadjutore izendatu zuten.

Arrasaten errotzea: Ekintza soziala eta utopia

Horrenbestez, Jose M^a Arizmendiarieta Arrasaten sustraituko zen, esperientzia konfiguratzailerean oinarritua, hala nola kristau komunitatearentzako zerbitzuan, gazteekiko hezkuntza lanean, eta gizarte eta enpresa munduan txertatzean; 1941eko otsailaren bostean iritsi zen hiribildura, bera baino zortzi urte zaharragoa zen Jose Luis Iñarra parroko berria baino egun bat lehenago. Arrasate, artean, gerraren esperientzia traumatikoak bitan zatitutako herri industrialaren zen. Azkar batean, hogeita bost urteko apaiz gazteak hiriko gazteengan jarri zuen arreta, haien artean langile giroan lanaren espiritualtasun berria sustatzeko aliatuak aurkitzeko. Ekintza Katolikoko Zentroa, Cerrajerako Aprestuzen Eskola eta San Joan Bataiatzailearen parrokiak bera izango dira horretarako bideak.

Berrogeiko hamarkadan bideratu gabeko askotariko premia material eta sozial ugari zeuden, eta gerra zibileko zauriak orbaindu gabe. Jose Mariak berdintasunezko gizarte justu baten utopia predikatzen zuen, guztion arteko batasun eta elkartasunaren bidez eraiki zitekeena. Misio horretara, modu berezi batean, gazteak zeuden deituta, eta horretarako, haiekin ekimen sozial biziak abiarazi zituen: *Juventud Deportiva Mondragón* fundatu zuen. Soziologia Akademia abiarazi zuen, Ekintza Katolikoko Zentroan. Lursail batzuk eskuratu zituen Iturripe kirolgune bihurtzeko, Eskola Profesionalaren etorkizuneko egoitza izango zena, eta Zaragozako Industria Perituen Eskolak hamaika ikasle matrikulatzea onartzea lortu zuen, Industria Peritutza ikasteko. Horien artean bost ikaskide zeuden –Usatorre, Larrañaga, Gorroñogoitia, Ormaechea eta Ortubay–, gerora Ulgor Kooperatiba sortuko zutenak. Hezkuntza eta Kultura Ligaren estatutuak ere idatzi zituen, funtsezko pieza enpresariak Elizaren Doktrina Sozialaren arabera enpresa eta gizarte barrutik eraberritzeko proiektu batean inplikatzen ahaleginean. Arrasateko Tuberkulosiaren aurkako Dispensarioa ere inauguratu zuen.

Berrogeita hamarreko hamarkadan, Jose Mariak atsedetik gabe jarraitzen du lanean Ekintza Katolikoaren Zentroan, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren eta Eskola Profesionalean. Bera zen lehena etsenplua ematen eta, horrela legitimatuta sentitzen zen gazteei eta eliztarrei ahalegina eskatzeko. 1952ko irailean, Loiolako gogo jardun batzuetan, zera idatzi zuen: *“Kristori begiratzen badiot eta Haren alde lan egiten badut, Haren zortzarekin konformatu behar dut (...). Apaizgoa onartzean gauza batzuei uko egin behar izan diet betiko: hobeto esanda, neure buruari erabat uko egiteko konpromisoa hartu dut. Apaiz naiz beti”*.

Ekimen sozial guztien gaineratik zein azpitik hari gidari bat zegoen: humanizatzea, irizpide ebanjelikoen arabera. Izan ere, enpresa abentura berriaren pasarte guztietan sustatzaile eta parte hartzaile izan zen. Ulgorrez gain, hor ziren Arrasate Tailerrak, Copreci eta Ederlaneko esperientzia kooperatiboak, baita San Jose Kontsumo Kooperatiba ere, Eroskiren, Laboral Kutxaren eta beste batzuen aitzindaria, baina beti diskrezioz eta protagonismo orotik urrun.

Pasioa: Heldutasuna, krisia eta gatatzak

Hirurogeiko hamarkadarekin, Arizmendiarietaren bizitzako hirugarren etapa hasten da, haren biografo handiak, Fernando Molinak, *pasio* deitu ziona, eta guk, *heldutasun* edo *errealismo krisi*. Ziurrenik bizitzako krisi existentzialik esanguratsuena da, finitutasuna proiektuari gailentzen zaiolako, eta bizitzaren eta zereginaren zentzua birkokatzen behartzen duelako.

1960an Arizmendiarietak *Cooperación* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zuen, 1964an *T.U.* bihurtuko zena (*Trabajo y Unión*), eta horko editorialaz arduratuko zen, hilabetez hilabete kooperatibismoaren kultura berria definituz. Izan ere, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa hedatzen joango zen Eskola Profesionaleko lizentziadun gazteen eskutik, Arrasate Tailerrak, Copreci eta Ederlan gidatzen hasi zirelarik. 1960an, San Jose Ikastetxeko zuzendariarekin ere ika-mika luze eta lehorra izan zuen, hark Hiriko Lan Batxilergoko programa bat ezartzeko asmoa zuelako, eta asmo hura ez zetorrelako bat Arizmendiarietak Iturripen Eskola Profesional berri bat eraikitzen zuten planarekin.

Arizmendiarietaren bizitza eta obra ez zela bide leuna izango baieztatzen zen. Izan ere, dagoeneko 1964an, haserre handia antzematen da Gipuzkoako enpresariaren artean, esperientzia kooperatiboaren hazkundera dela eta. Horrenbestez, Gipuzkoako Industria Ganberak protesta egiteko komunikatu bat zabaldu zuen.

1966ko apirilean, Alecop sortu zen (*Actividad Laboral Escolar Cooperativa*), ordura arte bananduta zeuden bi mundu lotzeko: ikasketak eta lana. Testuinguru horretan, polemika garrantza sortu zen kooperatibismoaren ahalmenei eta mugei dagokienez, Arizmendiarietaren eta Gasteizko Apaizgaitegiko irakasle eta hiriburuko gizarte lan garrantzitsuen sustatzaile izan zen Carlos Abaituaren artean.



Haren iritziz, espiritualtasuna abstrakzio gisa azaltzen zuen Elizak, kontuan hartu gabe alderdi ekonomikoak giza egiturak baldintzatzen dituela.

Osasunaren hauskortasuna eta tentsio politikoa

1967ko otsailean, Arizmendiarieta Madrilerara joan zen, beste behin, kooperatiben arloari lotutako gaiak kudeatzera. Orduko hartan Javier Mongelos eta Javier Retegui zituen lagun, biak ere laguntzaile leialak. Han zirela bihotzeko krisi bat izan zuen, eta Concepción klinikan ebakuntza egiten zioten, nekeak ahuldutako bihotzaren errealitatea agerian utzi ziotelarik.

Nola edo hala suspertuta, bere misioan jarraitu zuen grinatsu. 1967ko azaroan, Auzo Lagun emakume kooperatiba sortzen ageri zaigu. 1968ko uztailean, Arizmendiarietak pozik ikusi zuen Maisutzako Eskola Politekniko Profesional gisa ofizialki onartua zela.

1968tik aurrera, Frantziako “maiatzeko iraultza” ospetsuaren urtean, Euskal Herriko gatazka politikoa ere erradikalizatu egin zen. 1969ko uztailean, Gipuzkoako gobernadore zibilak, tentsio handiko bilera batean, kooperatibismoari probintziako subertsio politikoa bultzatzea leporatu zion, eta blokeo administratiboko politika bat hasi zen. Hala ere, 1970ean, Ulgor lantegi berria inauguratu zen Garagartzan, Lan eta Industria ministroak bertan zirela, baina tentsioak ez ziren amaitzen. *TU* aldizkariko editorial bat salatu zuten 1972ko otsailean, ustez “indarkeriaren apologia” egiteagatik, eta Informazio Ministerioaren Ordezkaritzak ohartarazpen serio bat egin zuen. Hori gutxi balitz, 1972ko ekainetik urrira, Alecopen lan gatazka piztu zen.

1973an egun batzuk eman zituen Basurtuko Ospitalean. Zauritua eta ahul, Arrasatera itzuli zen. Gainera, tentsio politikoan ez zegoen su-etenik. 1973ko abenduan, ETAK Carrero Blanco almirantea hil zuen, erregimen frankistako bigarrena. *TU* aldizkariko editorialak atentatua gaitzetsi zuen, eta lankidetzaren espiritua berritzeko deia egin, harreman eta bizikidetzaren sistema gisa. Eta esku orri bat zabaldu zen, “ETAko Atal Leninistak” sinatua, *TU*ren eta bere buruzagien posizio hipokrita eta traidorearen aurka.

1974. urtearen hasieran Jose Maria oso gaixo zegoen, eta bihotzeko ebakuntza berri baten atarian; azkenean, Madrilgo Concepción klinikan egin zioten. Ebakuntza osteko konplikazioek infekzio degeneratibo bat erakusten zuten: ebakuntza gelako gaitza.

Hala ere, Arizmendiarietari sufrimendu gehien eragin zion arrazoietakoa bat ez zen hainbeste mugimendu sozial batzuen kritika izan, baizik eta Elizarena berarena, kooperatiben arloko greba orokor batengatik, zeinak langile batzuk kanporatzea ekarriko zuen. Hori dela eta, Donostiako Elizbarrutiak, bere Idazkaritza Sozial hasiberriaren bidez, 1974ko azaroan, *Mugimendu kooperatiboaren gatazkak*


izeneko idatzi bat argitaratu zuen. Idatzi hura eskualdeko pulpitueta irakurri zen, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren izen ezik, orduko erretore Jose Luis Iñarrak hala erabakita. Idazkiak kooperatibismoaren nolabaiteko gainbehera agerian uzten zuen, eta kaleratutako langileen lan eskubidea defendatzen zuen.

Ekonomiaren espiritueltasuna eta amaiera

Kritika horiek bere bilakaera existentzial eta intelektuala ikusteko aukera eman zioten Arizmendiarrietari. Orduan, egoerak bere zehaztasunean hartzen zituen apaiz gisa ikusten zuen bere burua, teknikoki posible zena defendatuz, bere kritikariek zituzten amets eder eta eskuraezinei aurre eginez, horietako askok apaizak izanik. Tentsio hori agerian geratu zen Arantzazuko Santutegian egin zen apaizen azken bileran, Jose Maria Setien Donostiako Gotzain Laguntzailearen presidentziarekin. Bilera horretan, Arizmendiarrietak izenburutik beragatik ere harritu zuen hitzaldia eman zuen: "Ekonomiaren espiritueltasuna". Espiritueltasuna Elizak abstrakzio gisa azaltzen zuela argudiatzen zuen, tradizionalki arlo ekonomikotik bereizita zegoen heinean, kontuan hartu gabe ekonomiak giza egiturak eta botereak baldintzatzen zituela.

Arizmendiarrietaren espiritua, beste behin ere, teknikoki posible den heinean gorpuzten da, Laboral Kutxaren Ikerketa Teknologikorako Zentroaren egoitzako lehen harria jarri zenean ikusi zenez (egungo Ikerlan). Urtebete geroago, 1975eko amaieran, Franco jeneralaren heriotzarekin batera, Arrasateko koadjutoreari hirugarren ebakuntza egin zioten, susperraldi luze eta neketsua ekarriko zuena.

Jose Maria Arizmendiarrietak ez zuen zahartzaroaren esperientzia bizi, baina artatu zuten medikuen arabera 100 urteko gizon baten bihotza zuen. Ekainetik abuztura bitartean, beste ospitalizazio bat eta ebakuntza Madrilgo Concepción kliniketan. Irailean, berriro ospitaleratu eta bosgarren ebakuntza egin zioten klinika hartan bertan. Urriaren amaieran, Madrildik Arrasateko Zentro Asistentzialera eraman zuten, egoera atzerazina zela ikusita. Urriaren 2an, 35 urtez neke lagun izan zuen Jose Luis Iñarra, San Joan Bataiatzailearen parrokoa, hil zen. Azaroaren 29an, don Jose Mariak heriotza hurbil sentitzen du. Lagunei eskatzen die Magnificat otoitz egiteko, bere errezo gogokoenetako bat. "Ai, ama!" ahoskatu zuen azken hata botatzean. Arratsaldeko zortzietan hil zen Arrasateko koadjutorea, 61 urte zituela.



Egoerak bere zehaztasunean hartzen zituen apaiz gisa ikusten zuen bere burua, teknikoki posible zena defendatuz, bere kritikariek zituzten amets eder eta eskuraezinei aurre eginez, horietako askok apaizak izanik

Ondarea eta etorkizunerako erronkak

Arizmendiarrietak utzi digun legatua eta gaur planteatzen dizkigun erronkak

Arizmendiarrietaren legatua gako soil hauetan laburbil dezakegu:

- Pertsonak gizarte eta enpresa errealizazio ororen subjektu gisa duen zentraltasuna.
- Garapen pertsonala eta soziala integratzeko beharra: ez dago garapen sozialik, garapen pertsonalik gabe, garapen sozialik gabe ere garapen pertsonalik ez dagoen bezala.
- Lana, garapen pertsonala, komunitarioa eta soziala sortzeko iturri eta oinarri gisa.
- Lankidetzarako espiritua, ekonomia, politika, kultura eta gizartearen munduan antzematen den polarizazioaren antidoto gisa.
- Espiritualtasun gorpuztu bat bultzatzearen komenigarritasuna, hau da, pertsonaren eta gizakien familiaren dimentsio guztietan txertatua: psikoafektiboa, ekonomikoa, politikoa, ekologikoa eta transzendentea.

Haren heriotzatik 50 urtera (1976-11-29), kontziente gara Arizmendiarrietaren garaiak ez direla gureak, baina haren pentsamenduak eta espirituak bizirik jarraitzen dute eta zenbait erronka planteatzen dizkigute:

- Besteekin dugun zorra aitortzearen erronka:
 - *“Denok gara uste duguna baino zordunago besteekiko”* (Gogoetak, 298)
 - *“Ezin dugu gure burua sozializat eta justuzat eduki eta den-denok komunitatetik eta aurreko belaunaldietatik jaso duguna ahaztu, horren ordainetan dagozkigun ekarpenak egin barik”*, (Gogoetak, 299).
- Eraldaketa pertsonal eta sozialerantz ibiltzearen erronka:
 - Orainarekin konprometiz: *“Oroitzapenen lekua den iraganaren eta gure ilusioak egon ohi diren etorkizunaren artean, orainari aurre egin behar diogu, unean uneko egoerek ezartzen dizkiguten betebeharrak besarkatuz”*, (Gogoetak, 108).

- Une bakoitzeko behar sozial, komunitario eta pertsonalak deskubrituz: *“Etorkizuna momentu eta belaunaldi bakoitzean besteen errentetatik bizitzeari uko eginez aurrera egiteko gai diren gizakiena eta herriena da, norberaren bertute eta gaitasunean oinarrituta”*, (Gogoetak, 232).
- Lankidetzaren espirituaren eta praktikaren bidez, maila guztietan: *“Gure indarra ez da borroka bihurtzea, lankidetzaz baizik”*, (Gogoetak, 340).
- Pertsonaren eta bere heziketaren zaintza integrala bultzatuz: *“Gizakia heziketaren bidez bihurtzen da gizaki. Zibilizazioak ekintza formatibo edo hezitzailegatik azkar egiten du aurrera beti, balio humanoak eta sozialak bilatzeko bidean”*, (Gogoetak, 174).
- Teoria eta ekintza integratuz: *“Gauzatzen ez den doktrina, egintza bihurtzen ez diren usteak, taupadarik egiten ez duen bizia bezain gauza anormala dira, bibratzen ez duen mugimendua”*, (Gogoetak, 238).
- Azken batean, lana bere dimentsio bikoitzean bultzatzearen erronka: dimentsio teknikoan eta moralean: *“Enpresak gizakiek egiten dituzte: gaitasun teknikoa eta morala duten gizakiek”* (Idem, 447); *“Lana ez da Jainkoaren zigor bat, baizik eta Jainkoak, gizakia bere kolaboratzailetzat hartuta, gizakiari berari ematen dion konfiantzaren froga bat”*, (Gogoetak, 264).
- Horrek esan nahi du lanaren eta enpresaren ulermen etiko eta espirituala praktikatzeko ikasi behar dela, pertsona eta gizartea garatzeko leku eta denbora gisa: *“Errealitateei egin behar zaie aurre, hipotesiei bainoago; eta datu eta egintza zehatzei buruz hausnartu, formulazio ideologiko hutsei buruz bainoago”* (Idem, 390). Gure ustez, Jose Maria Arizmendiarrietaren dei hori gaur egun are nabarmenago ageri da, automatizazioak, robotizazioak eta adimen artifizialak eragin gero eta handiagoa dutelarik bizi garen mundu honetako ekonomia eta gizarte errealitateetan.

GRAZIAK LORTZEKO OTOITZA

*Jainko Jaun errukiorra, Zuk eragin zenuen
Elizan Jose Maria Arizmendiarieta Madariaga
zure zerbitzari presbiteroaren zeregin pastoral.*

*Eskerrak ematen dizkizugu zure
maitasunagatik, zeina zure zerbitzariaren
dedikazioan gauzatu den, kristau elkartean eta
gizartean, eta bereziki lan munduan.*

*Eskatu nahi dizugu apaiz eredugarri honek
emana ezagunagoa izatera iristeko eta Elizak
hala aitortzeko, santuen ohorearekin, kristauen akuilagarri.*

*Bete ezazu, haren bitartekotzaz, eskatzen dizudan
mesede hau zure loriarako eta zure herriaren
onerako izango bada. Jainko gure Jaunaren izenean.*

Gure Aita, Agur Maria eta Aintza

(elizaren lizentziaz)

GRAZIAK ETA DOHAINAK

Jainkoaren Zerbitzariaren bitartekotzaz eskuratutako grazia eta dohainak ezagutera emateko, hona jo:

Luzia Alberro.

Canciller del Obispado de San Sebastián.
Heriz Pasealekua 82.
20008 San Sebastián.

Diruz laguntzeko:

LABORAL Kutxa ES34 3035 0001 57 0010134337